

Epaileak 'Brouard kasuko' sumarioa itxi eta bederatzi lagun auzipetu ditu

Haien artean, besteak beste, Julian Sancristobal, Rafael Masa eta Jose Amedo daude

Joseba Arruti / Bilbo

Jose Luis Gonzalez Armengol epaileak *Brouard kasuko* sumarioa itxi duen autoa plazaratu zuen atzo. Bederatzi lagun auzipetu ditu HBko buruzagiaren erailketan, haien artean Julian Sancristobal eta Rafael Masa. Brouard hiltzeagatik Auzitegi Gorenak 33 urteko zigorra ezarri zion arren, epaileak ez du auzipetu Rafael Lopez Ocaña.

SANTI BROUARD-EN erailketaren inguruko sumarioa atzo itxi zuen Jose Luis Gonzalez Armengol epaileak. Jakinarazitako autoan, bederatzi lagun auzipetu ditu. Haien artean daude Julian Sancristobal Estatutaren Segurtasunerako zuzendari izandakoa eta Rafael Masa Guardia Zibileko teniente-koronela. Euzegain, Francisco Alvarez, Jose Amedo eta Michel Dominguez poliziak, Miguel Planchuelo Bilboko poliziburu ohia, Jesus Martinez Torres informazioko komisario nagusi ohia, Antonio Rosino lehen ikerketak zuzendu zituen komisarioa eta Luis Morcillo Pinillos Granadako enpresaria nahastu ditu epaileak erailketan.

Hala ere, Gonzalez Armengolek ez du ez du auzipetu Rafael Lopez Ocaña, nahiz eta Espainiako Auzitegi Gorenak 33 urteko kartzela zigorra ezarri zion hilketaren egi-



Rafael Masa eta Julian Sancristobal, Bizkaiko Entzutegian, *Brouard kasuagatik* deklaritzen.

leetako bat izateagatik.

Estatutaren inguruko pertsonak

Autoan aipatzen denez, Santi Brouarden erailketa jazo baino urtebete lehenago hasi zen prestatzen; Segundo Marey bahitu zutenean, alegia. Momentu hartan, «ETAren inguruko» zenbait pertsonaren aurkako atentatuak egin beharra aztertzeari ekin zitzaion. Brouarden erailketaren prestaketei bultzada emateko, autoak dio bilera bat egin zela Ercilla hotelean eta bertan, besteak beste, Sancristobal, Amedo eta

Planchuelo egon zirela.

Autoak dioenez, Jose Amedok ekin zion hilketa prestatzeari eta Sancristobalek fondo ezkutueta 50 milioi pezetarekin finantziatu zuen operazioa. Rafael Masari sikarioak kontratatzeke agindu zitzaion eta hau Jose Luis Morcillorekin eta Miguel Angel Lopez Ocañarekin jarri ei zen harremanetan.

Gonzalez Armengolek dioenez, urrian Miguel Planchuelok Brouarden kontsultaren beheko solairuko Instituto frantsesean zegoen zainketa poliziala kentzea agindu zuen, atentatua errazteko asmoz. Miguel Angel Lopez

Ocaña eta Alberto Granados bere koinatua atentatua gauzatzen saiatu ziren arren, huts egin zuten. 1984ko azaroaren 20an Luis Morcillo, Miguel Angel Lopez Ocaña eta Jean Louis Peralesek osatutako taldeak hil zuen Brouard.

Lopez Ocaña hilda dago eta aurreko instrukzioan, anaia errugabetu eta bere burua salatu arren, epaileak ez zuen aitorpen hori onartu.

Atentatuaren ondoren, Rosinok, Sancristobalen aginduz, ikerketak gerarazi zituen eta Martinez Torresek ETArri egotzi zion hilketa.

Felix Bengoa aske, 19 urte preso egon ostean

■ *Duela lau urte bete zituen ezarritako zigorraren hiru laurdenak*

Erredakzioa / Donostia

FELIX BENGOA preso oñatiarra atzo irten zen Burgosko espetxetik, 19 urteko espetxealdiaren ostean. Bengoak duela lau urte behar zuen aske baldintzapean, 1995ean bete baitzituen ezarritako zigorraren hiru laurdenak. Oñatiko preso 1980an atxilotu zuten, eta hamar egunez eduki zuten inkomunikatuta. Torturak salatu arren Carabanchelen espetxeratzeke agindua eman zuen epaileak, eta ordutik Soria, Alcala Meco, Herrera de la Mancha, Almeria, Caceres, Langraiz eta Burgosko espetxeetan egon da preso.

Atzo arratsaldean, Arrasatera heltzean, egin zioten lehen ongi etorria oñatiarrari. Handik, kotxe karabana batek Oñatira lagundu zuen. Oñatik datozen egunetan egingo zaio omenaldia.

Kanporatzeen kontrako manifestazioa egingo dute gaur Bilbon

Erredakzioa / Bilbo

EUSKAL HERRIAN bizitzeko eskubidearen aldeko eta kanporatzeen kontrako manifestazioa egingo dute gaur arratsaldean Bilboko kaleetan, Amnistia Aldeko Batzordeek antolatuta. 19:30etan emango zaio hasiera protestari, Plaza Eliptikoan, eta Arriaga plazan amaituko da, Aitziber Bañuelos AABeetako Bizkako koordinatzailearen hitzaldiarekin.

Manifestazio buruan, Iñaki Bilbao, Txema Olabarrieta eta Serafin Blanco euskal preso senideek eramango dute pankarta. Izan ere, Frantziako espetxeetan dauden hiru preso horiek urrian eta azaroan beteko dituzte ezarri zitzaizkien espetxe zigorrak, eta Espainiara kanporatuak izateko arriskuan daude; aurten beste zazpi presorekin gertatu den bezala.

Noainen kargua utzi zuten UPNko alkatearen eta hiru zinegotzien postuak gaur egingen den batzarrean beteko dira

■ *Zerrendan haien atzetik zeudenek hartuko dituzte karguak arratseko 18:00etan egingen den biltzarrean*

Irene Arrizurieta / Iruñea

NOAINEN Jose Maria Marco UPNko zinegotziaren etxearen aurkako erasoaren ondotik utzitako karguak gaur beteko dituzte, 18:00etan egingen den udal batzarrean. Jakina denez, irailaren 29an Marcoren etxebizitzan jarritako lehergailuak soka luzea ekarri du herrian. Urriaren 5ean egindako udal biltzar istilutsu eta berezian, Marcok eta Julian Arranz Sanchezek, alkatearen semeak,

dimititu egin zuten. Batzar hartan Julian Arranz alkateak eta Loitegi Herri Taldeak hainbat irain entzun zituzten IU-EBko zinegotzi baten ahotik, eta UPNko kide batzuegandik. Gertatuak kargu uzte gehiago ekarri zituen, eta iragan ostegunean Alejandro Valdeande IU-EBko zinegotziak dimititu zuen, eta, ostiralean, Julian Arranz alkateak.

Herenegun Rafael Gurra alderdiko idazkari nagusiarekin bildu ziren zerrendan

kargua utzi dutenen atzetik zirenak eta Miguel Elizari UPNtik gelditu den zinegotzi bakarra. Hortaz, gaurko plenoan alkate kargua Elizarik hartuko du; eta alkatearen eta joan diren bi erregionalisten tokia egokituko zaie Oskar Laquidain Pascuali, Candido Navarraz Ucarri eta Ignacia Macaya Arzoki.

Era berean, IU-EBko zinegotziaren lekukoa Julia Sanchez Rodriguezek hartuko du.

Bestalde, Loitegi Herri Tal-

deko hiru zinegotziek gaurko udalbatzarrean joan diren arren, astelehenerako beste bat deitu dute ordu berean. Loitegiok ere pentsatu dute dimisioan, baino aurretik Udaleko beste partaideen iritzia jaso nahi dituzte. Jon Oiartzun taldeko zinegotziak esan duenez, IU-EBri urriaren 5eko udal biltzarrean esandakoak atzera bota ditzala eskatuko diote. Hala, ber, jakin nahi dute eurekiko zein jarrera duten udaletxean dauden beste taldeek.